

JARDUERAK

Gure enpresa Mendialdean bideratuko diren eguneroko bizitzaren ekintza kultural, gastronomiko eta lan-jardueretan oinarrituko da. Horretarako, oinarritzko jarduera batzuk aurrera eraman behar direlarik:

- Enpresaren barruko jarduerak:

Eskainiko dugun zerbitzuarekiko informazioa helaraztea eta bezeroekin harremanetan egongo den taldea, gure enpresaren langileak izango dira. Gu geu bezeroekiko komunikabide lanetan arituko gara, non gure hiriko bulegoan, fisikoki harremanetan egongo gara eta zati digitala ere zuzenduko dugu. Horrela, bideratuko dugu aldez aurreko harremana. Behar diren hobekuntzak eta berripenak eginez, hots gure webgunearena. Haren egitura bisuala, erakargarria eta zuzena izango baita. Hau horrela izateko, ekintzak aurrera eraman ahala haietan bizitako esperientzia zoragarrien argazkiak zintzilikatuko ditugu, gure bezeroak erakartzeko. Baita aurkibide bisuala eta sinplea izango dugu non ekintzak bideratuko diren eskualdeak mapa batean zehaztuz.

- Beste langile batzuk:

Adin txikiko umeekin eta nerabeekin lan egingo dugunez, udaleku zein eskola ireteeretan, berezibizkoa izango da begirale kopuru bat izatea. Horretarako, gure enpresa harremanetan jarriko da begirale titulua ateratzen laguntzaen duten eskoleekin, behin haien ikasleak titulua edo zati teorikoa izanda, gurekin praktikak edo zuzenean lan-kontratu bat egiteko.

- Esternalizazioa:

Gure ekintza guztiak beste enpresa edo sozietateekin lan egitea eskatzen du. Haien aldetik, jarduera eskuratzeko, alegia. Zaldiketa jarduerari dagokionez, Mendialdeko Haranako Zalditegiarekin harremanetan jarriko ginateke azpikontratatua izateko. Nekazaritzarekin erlazionaturiko ekintzak (uzta bilketa, lurra landu, erein...). Genevillako nekazari familia bat azpikontratatu genezake haiek jarduera hauek irakasteko eta jarduera horiek gidatzeko.

Horrez gain, animaliekin lan egiten duten enpresak; Orbisoko txerriak, Antoñanako oilo haztegia, Kanpezuko txahal haztegia, Kanpezuko ardien haztegia.... azpikontratuan egongo dira, gure bezeroei haien lana zertan datzan erakusten eta bezeroak integratzen lan horietan. Hala nola, oiloei janaria eman, ardiei ilea moztu....

Garraioari dagokionez, gure bezeroei eskiniko digounez erosotasuna, Donebikendi Haranako autobus enpresa, Perez, kontratatuko dugu. Enpresa honek gure bezeroak garraiatzeaz arduratuko da, guk eramango dugulako beharrezko materiala enpresaren furgonetan.

Udalekuetan eta egun bat baino gehiagoko zerbitzuetan, gaua pasatzeko, Bernedoko aterpearekin eta landetxekin, Kanpezuko aterpearekin eta Izkizko landaetxearekin kontaktuan jarriko ginateke. Horrela, udalekuetako umeak asko izango direnez, aterpeetan geratuko lirateke eta egun bat baino gehiagoko egonaldia egingo dutenek, landa etxeetan garatuko lirateke.

Gure bezeroei harrera egiteko, aterpeetan geratuko direnei aterpeetan egingo da. Horrela, behin Mendialdera iristean eta lehenengo aurkezpena eginda, ekipaje non utzi, eta arauak zeintzuk diren azalduko dira, ekintzaren jarrabideekin batera.